

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Guardiako jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2021eko erroldak kobratzea

Nik, Lucio Castañeda Martínez de Treviño Guardiako (Araba) Udaleko alkate-lehendakariak, hauxe jakinarazten dut:

2021eko azaroaren 26tik 2021eko abenduaren 26ra bitartean, bi egun horiek barne, borondatezko epean ordaindu ahal izango dira 2021eko honako zerga hauek:

1. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

I. Ordaintzeko epea:

A. Borondatezko epea: 2021eko azaroaren 26tik 2021eko abenduaren 26ra arte.

B. Betearazte aldia, ehuneko 5eko errekaruarekin: borondatezko epea bukatutakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, indarrean dagoen Diru-bilketarako Arautegi Orokorrean ezarritako xedapenen arabera.

II. Ordaintzeko tokia eta modua:

A. Banketxeetan helbideraturako ordainketak: aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontu berbera mantentzen badute. Udala arduratuko da ordainketa izapidetzeaz.

B. Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideraturik gabe dutenek, borondatezko epean bakarrik ordaindu ahal izango dute, Guardiako Udaleko bulegoetan, txartel bidez.

III. Gomendioak:

Banku helbideratzeetako altak edo aldaketak eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Guardiako Udalean izapidetu behar dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Guardia, 2021eko azaroaren 16a

Alkate-lehendakaria

LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO